ERRONKETAN OINARRITUTAKO METODOLOGIA

GRADUA ONLINE-EKO ESPERIENTZIA

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

GAIAK:

1. Hezkuntza graduak online: Kokapen orokorra
2. Nola ulertzen dugu E.O.M?
3. Zer eta nola egiten dugu online graduetan?
4. Nola bizi dute ikasleek?

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

KOKAPEN OROKORRA

Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza graduak

2012an eskaini ziren graduak online lehenengo aldiz (materietan antolatuta)

Ikasleen profila:
- Lanbide heziketatik datozen ikasleak
- Goi mailako kirolarientzat
- Aurretik graduatu direnentzat
- 25 urtetik gorako sarbide froga egin dutenentzat

KOKAPEN OROKORRA

Online eskaintzek aukera berriak definitu dituztela:

- lan egiteko modu berri bat,
- ikasteko modu berri bat,
- komunikatzeko modu berri bat,
- elkarrekintzarako modu berri bat
- baliabideak kudeatzeko modu berri bat, besteak beste.

Era horretako eskaintzek, ordea, etengabeko egokitzapenak behar dituzte, aldaketa teknologikoekin uztartuta.

HAUSNARKETARAKO UNEA

BEHARRAK:

- UKO asko materietan
- Ikasleen asebetetzean gora beherak
- Materien diseinuak
- Zeregin erreproduktiboak

ILUSIOA:

- Berrikuntzarako gogoa komunitatean
- IKOn aldaketarako pausua emanda
- MBD 2025

Gako hauek kontutan izanik berrikuntza prozesu bat abiarazi genuen LH eta HH online graduetan.

IKOko eredua jarraituz, erronketan oinarritutako ikaskuntzaren bideari ekin genion

NOLA ULERTZEN DUGU E.O.M?

Erronketan oinarritutako ikaskuntza metodologia aktiboen markoan kokatzen da.

Hainbat ezaugarri hartzen dituzte kontutan:
- ikasleek kolaborazioan erantzuten diete erronka errealei;
- erronkei aurre egiteko, teknologiaren erabilera sustatzen da;
- erronkak arazo errealetatik eratortzen dira, eta, beraz, disziplinartekoak dira;
- irakasleek taldean egiten dute lan, eta gaurkotasunaren kontzientzia eta ezagutza handia izan behar dute;
- irakasleek ikasleen interesak eta munduko gertakizunak lotzeko saiakera egin behar dute, ikaste esperientzia abiapuntutzat hartuz.

STAR LEGACY ZIKLOA



HEZKUNTZA GRADUAK ONLINE

HH eta LH online graduak berrikuntzan:
- 4. ikasmaila gradu bakoitzean
- 100 ikasle inguru

2016/2017 eta 2017/2018 ikasturtean ikerketa proiektuak egin ditugu.

2018/2019 ikasturtean proiektu berri bat martxan (escape room).

ERRONKEN ANTOLAKETA ETA DISEINUA

1. ZIKLOA

- Irakasle profila (01)
- Gizartea (02)
- Haurra (03)

2. ZIKLOA

- Irakasle profila (01)
- Aipamenak (02)
- Haurra (03)

ERRONKEN ANTOLAKETA - 1. MAILA

Irakasle lanbidera hurbilpena	Tradiziotik post-modernitatera	Zuri guztiak ez dira irin Guztiontzako eskola	Euskal eskolako irakasle idealaren bila	Tradiziotik post-modernitatera hezkuntzan	Aurreak erakusten du Ezina ekinez egina	Ni, irakasle
irakasle profilari lehen hurbilpen bat egitea da, norberak ikasle bezala izan dituen bizipenetatik.	errealitate sozial, kultural, linguistiko, zientifiko eta teknologikoaren inguruko hausnarketa eta azterketa lokal eta globala egitea	0-6 edo 6-12 urte bitarteko ume bat zer den eta haren garapena nolakoa den aztertzen dute ikasleek, Guztiontzako Eskola bat irudikatuz	XXI. mendeko euskal eskolako irakasleen ezaugarritzea	XIX. mendeko erakundea, XX. mendeko arduradunekin, XXI. mendeko pertsonak hezteko(?)":	eskola inklusiboaren antolaketatik hasita, beharrezko tresnak eta estrategiak identifikatzea	norberaren ibilbidearen autoebaluzioa egiten dute, eta aurrera begirako erronkak
Garapen pertsonala, autoezagutza, soziolinguistika	Soziologia, soziolinguistika, gizarte zientziak, teknologia, zientzia esperimentalak eta antropologia	garapenaren psikologia, hezkuntza inklusiboa, didaktika eta eskola antolaketa	Didaktika, soziolinguistika, auto-ezagutza	Hezkuntzaren teoria eta historia, hezkuntzaren soziologia	garapenaren psikologia, hezkuntza inklusiboa, didaktika eta eskola antolaketa	autoezagutza
Autobiografia	Dokumentala	Aldizkari digitala (HH), hezkuntza jardunaldiak (LH)	Portfolioa	Museo birtuala	Aldizkari digitala	Portfolioa

ERRONKEN EGITURA

- Ikasleari zenbait galdera orokor aurkeztu

- Ikasleak edo ikasle taldeak galdera horien erantzuna bilatu ikerketa prozesu bat eginez

- Ikerketa amaitzerakoan, produktu batean islatu beharko ditu emaitzak.

Erronka bakoitzaren iraupena ezberdina da –curriculumaren kredituen araberakoa, hain zuzen ere–.

Erronka bakoitzean ikuspegi jakin batzuk lantzen direnez, bi edo hiru tutorek gidatzen dute prozesua.

Tutore taldea bera da, ordea, erronka multzo bakoitzean (01, 02 eta 03).

ADIBIDE BAT

Hezkuntza itun berri baterako manifestu poetikoa

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

JARRAIPENA

Ikaste-emaitzen jarraipena egiten da

- Ikaslearen auto-erregulazioa (e-portfolioa)

- Tutore taldea

- Koordinaziotik

NOLA BIZI DUTE IKASLEEK PROZESUA?

Ikasle eta irakasleen ahotsek erakutsi digute erronketan oinarritutako ikaskuntzak aukera ematen duela garapen pertsonal zein profesionalerako eta ikaste komunitateak eratzeko.

Ikasle taldearengan isolamendu sentsazioa desagertu da.

Erronkek aukera eman digute ikasle guztien eta bakoitzaren interesetatik abiatzeko eta, ondorioz, ikaste esperientzia pertsonalizatuak eskaintzeko.

Esperientzia disziplinartekoak sortzea estimulagarria da ikasle eta irakasleentzat.

Ziurgabetasunari aurre egiteko estrategiak garatzen dituztela ikasle eta irakasleek eta errealitateari hurbiltzeak eragina duela motibazioan.

ERRONKAK

FEEDBACK-A:

- Ikasleei feedback-a noiz (erronkak amaitzean) eta nola (kanalak) eman

ERRONKEN DISEINUA:

- Metodologia ezberdinak martxan jartzeko hautua egin da (inquiry based learning-a, arazoetan oinarritutako ikaskuntza, kasuetan oinarritutakoa...)

IKASLEEN ERRITMOAK:

- Erritmo anitzak errespetatzeko zailtasunak

PERTSONALIZAZIORANTZ

MILA ESKER!